

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onespena ematea hileta zibilak eta heriotzagatiko omenaldiak arautzeko ordenantza sortzeari

Hileta zibilak eta heriotzagatiko omenaldiak arautzeko ordenantza sortzeko udalbatzak 2024ko azaroaren 26an egindako ohiko bilkuran hartutako behin-behineko erabakia jendarean jartzeko epea igarota, eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtu da, bat etorritoki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikuluan xedatutakoarekin.

Aipatutako foru arauak 16.4 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan jasotakoa betez, osorik ematen da argitara ordenantzaren testua:

UDAL ORDENANTZA, HILETA ZIBILAK ETA HERIOTZAGATIKO OMENALDIK BAIMENTZEA ETA EGITEA ARAUTZEN DUENA

HITZAURREA

Gizarteak oro har dakienez, estatu akonfesional eta laiko batean, erakundeek bermatu egin behar dute pertsonen eta erkidegoen ideologia, erlijio eta kultu askatasuna, legearen arabera ordena publikoari eusteko behar diren mugak soilik jarrita. Halaber, jakina da gure gizartearen aniztasun ideologiko, erlijioso eta kulturala, plurala baita, eta etengabe eraldatzen ari baita bere ohitura eta gizarte ekitaldien adierazpenean.

Hileta zibilak edo heriotzagatiko omenaldiak egitea dator gizarteari hileta erlijiosoan alternatiba bat eskaintzeko beharretik, ekitaldi duin eta pertsonal baten bidez.

Udal honen nahia da egunetik egunera gero eta eskari handiagoa duen behar sozialari erantzutea.

Ordenantza honen bidez, beraz, arautu nahi da Kanpezuko gizarte zibila osatzen duten senide, lagun, erakunde eta/edo entitateek beren hildakoei, omenaldi edo agur gisa, beren ekarpen komunitarioak edo balio etikoak eta/edo giza balioak aitortzeko, egin nahi dizkieten ospakizunak eta haiek egiteko baimena.

I. KAPITULUA. XEDEA

1. artikulua

Ordenantza honen xedea da udalerrian hileta zibilak edo heriotzagatiko omenaldiak egiteko udal aretoak erabiltzeko baimenak arautzea, edozein izanik ere pentsaera, sinesmena edo ideologia.

II. KAPITULUA. BAIMENA

2. artikulua

Alkateak edo hark eskuordetzen duen zinegotziak eman ahal izango du baimena hileta zibiletarako edo heriotzagatiko omenaldietarako gordeta dauden lekuak erabiltzeko, aurrez jasota Kanpezuko Udalaren erregistrora eskaera egiten duen pertsonak edo senitartekoak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

III. KAPITULUA. PROZEDURA HASTEAN

3. artikulua

Hileta zibilak edo heriotzagatiko omenaldiak egiteko eskaerak Kanpezuko Udaleko alkateari helarazi behar zaizkio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak onetsitako moduetako edozeinetan.

4. artikulua

Hileta zibilak edo heriotzagatiko omenaldiak egiteko eskaera ebazpena emateko eskumena duen pertsonari bidali behar zaio, eta ekitaldia egiteko proposatutako eguna baino 24 ordu lehenago egin behar da, bulego ordutegian, astelehenetik ostiralera. Eskaerari ahalik eta lasterren erantzun zuzena eman behar da.

5. artikulua

Udalak lokala eskatu nahi duenaren eskura jarriko du inprimaki normalizatu bat, honako datu hauek jasoko dituena:

a) Ekitaldia egiteko baimena eskatzen duenaren izena, deiturak, bizilekua eta identifikazioa. Izapideak bizkortzeko, komeni da telefono zenbaki bat edo posta elektronikoko helbide bat ematea, nahitaezkoa ez den arren.

b) Hildakoaren izen-abizenak eta heriotza ziurtagiria.

c) Adierazi eskaeran hileta edo omenaldi zibila egiteko zein egun, ordu eta leku den nahiago, 9. artikuluan ezartzen diren ordutegietan.

d) Ekitaldiak honako leku hauetan egingo dira:

– Kultura etxeko ekitaldi aretoa eta pilotalekua.

e) Eskaera non eta noiz egin den.

f) Eskatzailearen sinadura edo haren borondatea benetakoa dela edozein bitartekoren bidez egiaztatzen duen agiria, zeinarekin bere gain hartzen baititu V. kapituluan jasotako betebeharrak.

g) Ekitaldiaren deskribapen laburra.

h) Ekitaldiak zenbat iraungo duen gutxi gorabehera.

6. artikulua

Eskaerak ez baditu betetzen aurreko artikuluan adierazten diren baldintzak, ahalik eta presa handienarekin eskatuko zaio interesdunari ekitaldia baino lehen hutsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko.

IV. KAPITULUA. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA

7. artikulua

Hileta edo omenaldi zibila egiteko eguna eta ordua alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak finkatuko ditu.

Instrukzioa egingo da estu lotuz eskaerak aurkeztu diren hurrenkerari eta, ahal dela, aintzat hartuz eskatzaile bakoitzak adierazitako lehentasunen hurrenkera. Eskaerak aurkeztu diren hurrenkerari ez lotzea ere gerta liteke, baldin eta premia aparteko edo urgenteko gorabehera objektiboak badaude. Edozein modutan, premia aparteko edo urgentea behar bezala arrazoituta egon beharko da eta entzun egin beharko da beren eskubidea aldatu zaien esateko dutena.

Eguna eta ordua finkatuko dira eskatzaile bakoitzak adierazitako lehentasunen hurrenkera ere aintzat hartuz, ahal dela. Litekeena da eskaeretan jarritako ordutegia aintzat ez hartzea, baldin eta udal lokalen erabilerak eragindako egoerak badaude. Edozein kasutan, ebazpena behar bezala arrazoitu beharko da, eta eskatzaileei galdetu beharko zaie eskatu dutenarekiko erabaki den aldaketaren gainean.

8. artikulua

Eskaera aztertuta, alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak, ahal bada, lokala erabiltzeko baimena emango du.

9. artikulua

Hileta edo omenaldi zibilak egin ahal izango dira baliabideek eta ordutegiak hartarako aukera ematen badute eta lokala ez badago aurrez erreserbatuik beste erabilera baterako.

Oro har, hileta zibilak edo heriotzagatiko omenaldiak egiteko ordutegia 09:00etatik 21:00etara izango da.

V. KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

10. artikulua

Familiak edo adiskideek nahi badute modu berezian apaindu edo egokitu hileta zibila egingo den aretoa, bere kontura izango da muntatzea eta gero lekua garbitzea, eta erabili aurretik zegoen bezala uztea.

Baimenaren titularra izango da ekitaldian udal ondasunei eragin lekizkiekeen kalte eta galeren erantzule.

Hileta zibiletan bakarrik onartzen dira errauts ontziak.

Era berean, baimenaren titularra izango da pertsonen duintasunari eraso egitea dakarren edozein ekintza edo iruzkinen erantzule.

Inola ere ezingo da sartu aipaturiko udal lekuetan baimendutako gehieneko edukiera baino pertsona gehiago.

Lagatako lokalen ondoan egunero egiten den jarduera normal egiten dela bermatzeko, ekitaldira doazenek ez dute egingo molestetzen duen inolako jarduerarik.

11. artikulua

Senitartekoek eta/edo lagunek udal lokala apaindu edo modu berezian egokitu nahi badute, Udalari jakinarazi beharko diote, behar besteko aurrerapenaz, bidezkoa dena ebatz dezan, eta beren kontura izango dira sortzen diren gastuak. Ekitaldia egiteko zerbitzu osagarriak interesduinak jarriko ditu, bere kontura jarri ere, Udalak gainbegiratzearen kalterik gabe. Edozein modutan, ekitaldia amaitutakoan, erabiltzeko entregatu zenean bezalaxe geratu beharko du lokalak.

12. artikulua

Ordenantza honetan jaso gabekoetan, udal arduradunen aginduak bete beharko dira.

13. artikulua

Debekatuta dago hileta zibilak eta heriotzagatiko emanaldiak gorpua bertan dela egitea. Ekitaldietan eduki daitezke errauts ontziak.

Berariaz debekatuta dago errautsak haizatzea edo botatzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Kanpezuko alkateari baimena ematen zaio ordenantza hau aplikatzeko behar diren jarduerak egiteko.

AZKEN XEDAPENA

Testu osoa ALHAOn argitaratzen den unetik aurrera egongo da indarrean ordenantza hau, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2. eta 70.2. artikuluetan ezarritako epea igaro ostean, eta indarrean egongo da aldatzen edo berariaz indargabetzen den arte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko urtarrilaren 24a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO